

Bizkaiko IBESari buruzko informazio-saioak

Sistema hori aplikatu behar duten enpresei martxoan aurreratu zitzaien bezala, **2018ko urtarilaren 1ean** IBES ezarriko da Bizkaian, BEZA kudeatzeko sistema berria, informazioa berehala ematean oinarrituta dagoena. Sistema horren bidez, BEZaren erregistro-liburuetako fakturazio-erregistroak telematikoki bidaltzen dira.

Erregistro-liburuak egoitza elektronikoaren bidez egiteko sistema berri hau ezartzeak administrazio-kargak murriztea ekarriko die sistema hori aplikatu behar duten zergadunei, ez dituztelako zenbait tributu-eredu aurkeztu beharko; gainera, iruzur fiskala errazago kontrolatu eta prebenitu ahal izango da, elkarrengandik hurbilago egongo baitira fakturak erregistratu edo kontabilizatzeko unea, batetik, eta haien azpian datzan eragiketa ekonomikoa benetan egiten den unea, bestetik.

Economia Itunaren 46.Bi.a) artikuluaren arabera, zergapekoa **ikuskatzeko eskumena** duen administrazioaren aurrean bete behar dira BEZaren kudeaketa-sistema horren ondoriozko informazio-betebeharrak.

Sistema derrigor aplikatuko zaie hil naturalarekin bat datorren likidazio-aldia duten enpresaburuei, profesionalei eta BEZaren gainerako **zergadunei**. Zehazki, BEZaren hileko itzulketaren erregistroan (REDEME) inskribatuta dauden pertsona eta entitate zergadunei, erakunde taldeen araubide berezian (REGE) inskribatuta dauden entitate zergadunei eta, azkenik, aplikazioaren aurreko urtean 6.010.121,04 euroko urteko eragiketa-bolumena izan duten pertsona eta entitate zergadunei. Halaber, sistema aplikatzea borondatez aukeratzen dutenek erabili ahal izango dute. Kasu horretan, zerga hilean autoliquidatzena behartuta egongo dira, eta, gutxienez, aukera hori hautatu duten urte naturalean egon behar izango dute sisteman.

Sesiones informativas sobre el SII en Bizkaia

Tal y como se les avanzó en marzo a las empresas obligadas a su aplicación, el próximo **1 de enero de 2018** se va a implantar en Bizkaia el SII, el nuevo sistema de gestión del IVA basado en el suministro inmediato de información. Este sistema consiste en el suministro telemático de los registros de facturación integrantes de los libros registro del IVA.

La implantación de este nuevo sistema de llevanza de los libros registro en sede electrónica supondrá para los contribuyentes obligados a aplicarlo la **reducción de cargas administrativas**, en la medida en que quedarán exonerados de presentar determinados modelos tributarios, y facilitará el control y la prevención del fraude fiscal, ya que permitirá acercar el momento del registro o contabilización de las facturas al de la realización efectiva de la operación económica que subyace a las mismas.

En aplicación del artículo 46.Dos.a) del Concierto Económico, las obligaciones de información derivadas del citado sistema de gestión del IVA deberán cumplirse ante la Administración a la que corresponda la **competencia inspectora** del obligado tributario.

Este sistema será de aplicación obligatoria a personas empresarias, profesionales y otros **contribuyentes** del IVA que tengan un período de liquidación que coincida con el mes natural. En concreto, las personas y entidades contribuyentes inscritas en el Registro de Devolución Mensual del IVA (REDEME), las entidades contribuyentes inscritas en el Régimen Especial de Grupos de Entidades (REGE), así como las personas y entidades contribuyentes cuyo volumen de operaciones del año precedente al de su aplicación hubiera excedido de 6.010.121,04 de euros. Asimismo, podrán incorporarse al sistema quienes opten voluntariamente por su aplicación, en cuyo caso quedarán obligados a autoliquidar el impuesto mensualmente y deberán permanecer en el sistema, al menos, durante el año natural para el que se hubiera ejercitado dicha opción.

IBESa hemendik gutxira Bizkaian nola ezarriko den ezagutaraztearen, **zenbait informazio-saio** antolatu nahi ditu Foru Ogasunak, azaroan zehar, sistema aplikatu behar duten zergadunei zein haien aholkulariei zuzenduta. IBESaren inguruko alderdi normatibo, tekniko eta informatikoak landuko dira saio horietan, interes praktikokoak guztiak ere. Deialdia posta elektronikoaren bidez luzatuko zaie sistema aplikatu behar duten zergadunei zein haien aholkulari fiskalei, beren elkartea eta elkargo profesionalen bidez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian ere iragarriko dira.

Gaur egun, Bizkaiko Foru Ogasuna buru-belarri sartuta dago sistemaren **garapen teknikoa** egiteko prozesuan, baina zergaduneek beren betebeharra errazago bete ahal ditzaten, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren IBESak erabiltzen dituen formatu, diseinu eta balidazio berberak erabiltzea erabaki da.

IBESari buruzko **informazio gehiago** lortu nahi izanez gero, sartu hemen: [Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orria](#). Egun erabilgarri dagoen informazioa osatuz joango gara sistema ezartzeko beharrezkoak diren zehazpen normatibo eta teknikoak garatu ahala.

Con el objetivo de dar a conocer los detalles de la próxima implantación del SII en Bizkaia, esta Hacienda Foral tiene previsto organizar en noviembre varias **sesiones informativas** dirigidas a los contribuyentes obligados a aplicarlo y a sus asesores. En ellas se abordarán distintos aspectos normativos, técnicos e informáticos del SII de interés práctico. La convocatoria se extenderá mediante correo electrónico tanto a los contribuyentes obligados como a los asesores fiscales a través de sus asociaciones y colegios profesionales, además de anunciarse en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia.

Actualmente Hacienda Foral de Bizkaia se encuentra inmersa en el proceso de **desarrollo técnico** del sistema, pudiendo anticipar que, con el fin de facilitar el cumplimiento de sus obligaciones a los contribuyentes, se ha optado por utilizar los mismos formatos, diseños y validaciones que los utilizados por el SII de la Agencia Estatal de Administración Tributaria.

Puede obtener **más información** sobre el SII en la [página web de la Diputación Foral de Bizkaia](#). La información actualmente disponible se irá completando a medida que se desarrollen las especificaciones normativas y técnicas necesarias para su implantación.

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA
EL DIRECTOR GENERAL DE HACIENDA



Sin/Fdo.: Aitor Soloeta Eraso